

'Praza Pública', galegozko egunkari digital berria

GALIZIAKO idazle eta kazetari talde batek *Praza Pública* agerkari digitala sortu du. Galego hutsean idatzia, paperezko hainbat hedabidek (*Xornal de Galicia*, *Galicie Hoxek* eta *A Nosa Terra*) lagatako hutsunea bete nahi du proiektu berriak. Hilabete honetan jarriko dute abian.

UEUk ere neurriak hartu beharko ditu

ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZA OSOA, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sai-



lak ematen ziona, galdu du Udako Euskal Unibertsitateak. Lehenengo aldiz laguntza instituzionala 1998an lortu zuen, bi milioi pezeta. 2011n 177.840 euro jaso zituen; aurrekontuaren %25 osatu zuen. UEUren esanetan Hezkuntza sailburuaren

erabakia izan da laguntza oso-osorik kentzea. UEUk bere webgunean dioenez, elkartearen jardueraren azterketa sakona egiteaz gain, egiturazko murrizketak (langileria eta egitasmoak) ekarriko ditu. Lanpostuen etete zuzena ekarriko du, murrizketak lanaldietan eta ERE bat martxan jartzea.

2012an 40 urte beteko ditu Udako Euskal Unibertsitateak.

10.000 sarrera gehiago Wikipedian

EUSKARAZKO WIKIPEDIAK 10.000 sarreratik gora jaso ditu kolpera. Elhuyar Fundazioak Lur Entziklopedia paperezkotik 10.000 artikulutik gora aldatu ditu digitalera. Eki-men horren sustatzailea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza izan da. Gaur egun 120.000 sarreratik gora ditu Euskarazko Wikipediak.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Borboitarren opakotasun erreala

Juan Carlos Borbón erregearen suhi Urdangarinen auziak mahai gainean jarri ditu Errege Etxe espainiarraren diru eta negozioak. Espainiako Estatuko zergadun guztiok mantentzen dugun etxea da, baita euskaldunok ere, monarkikoak ez izan arren, erregea aukeratu ez dugun arren eta Euskal Herri libre eta independentearekin zerikusirik ez duen arren. 35 urteko opakotasunaren ondoren, etxe horrek dio orain gardena izango dela bere kontuekin. Joan den astean aurkeztu zituen. Opakotasuna mantendu egin da. 2011n, Borboiek 8,43 milioi euro jaso zituzten Estatuko Aurrekontuetatik, gure poltsikotik. Erregeen eta Asturiasko Printzeen gastuak ordaintzeko kopuru hori, aitzitik, Espainiako Koroara aurrekontu publikoetatik bideratzen denaren zati txiki bat besterik ez da. Eraikinen mantenua, enplegatu askoren nomina (130), baita militarren, guardia zibilen, gidari ofizialen eta bidaien kostuak ere, Ondare Nazionalak, Administrazio Publikoen Ministerioak eta Atzerri Ministerioak ordaintzen dituzte. Zenbat milioi euro izango ote dira horiek?

Forbes aldizkariak zioen monarka espainiarrak 1.790 milioi euroko fortuna duela. *El País* egunkariaren arabera, Zarzuelako iturri batek zera segurtatu zuen: "Erregeak gutxi gastatzen du eta ondo inbertitzen du". Nola gastatuko du dena ordainduta badu! Nola eta non inbertitzen du? Zeinek aholkatzen du? Gardentasunez argitu beharko luke hori, zeren eta zurrumurrutik harago doaz paradisu fiskalen inguruko susmoak, Urdangarinen eta Espainiako Errege Etxearen diruaren aterpe liratekeenak. Ez da nahikoa azaltzea 8,43 milioi euro gozo horiek zertan erabili dituzten. Azal dezatela, baita ere, zertan erabili dituzten Ondare Nazionalaren eta Kanpo eta Administrazio Publikoen Ministerioetako partidak. Eta azkenik, azal dezatela zer harreman duten paradisu fiskalen munduarekin!

Juan Mari Arregi



BAHEA

Paul Bilbao eta Garbiñe Petriatik *Garan* esanak: "Batetik, Behatokia euskaraz bizi nahi eta oztupoak izan dituzten herritarren artean erreferente garrantzitsua bilakatu dela erakusten du [Behatokiaren hamar urteko lanaren bilketak]. Eta hori poztekoa da. Bestetik, Behatokia ahalik eta azkarren atek ixteko bokazioarekin jaio zen. Baina 2001. urteko ondorioak eta 2010. urtekoak errepikatzen direla ikusita, alegia, hizkuntza-eskubideak Euskal Herri osoan eta administrazio guztiek urratzen dituztela baieztatuta, zalantzarik ez dago bere lana egiten jarraitu beharko duela Behatokiak".